

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

18. astea (2025eko apirilaren 28tik maiatzaren 4ra)

Gripe-birusaren eta ABSren zirkulazioak beheranzko joerarekin jarraitzen dute. COVID-19 kasu kopurua balio baxuetan mantentzen da.

- *Aste honek jaiegun bat dauka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotakoetan.*
- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 169,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (211,5/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak eta bronkiolitisaren tasak behera egiten jarraitzen dute. COVID-19aren tasa balio baxuetan mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 11 lagin jagoleen % 45,5 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik, baina ez gripe-birus ala ABSik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 10,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,7/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 49 SARS-CoV-2, 11 gripe-birus eta 6 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikoko jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 169,3 kasukoa izan da (211,5/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 108,5/100.000 izan da Araban, 173,1/100.000 Bizkaian eta 191,6/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 1795,5 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 64 urtetik gorako adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 505,9 eta 212,8 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 59,0 kasukoa izan da (77,8/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arabera intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 18. astea	Tasa 17. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	113,0	192,5	0,58 (0,51-0,67)
Arabar Errioxako ESI	314,6	374,1	0,84 (0,54-1,30)
Barakaldo-Sestaoko ESI	151,4	187,9	0,80 (0,66-0,97)
Barrualde-Galdakaoko ESI	170,8	238,9	0,71 (0,63-0,79)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	189,0	251,0	0,75 (0,68-0,83)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	187,0	206,3	0,90 (0,77-1,05)
Uribeko ESI	140,6	168,4	0,83 (0,71-0,97)
Bidasoako ESI	163,2	169,6	0,96 (0,75-1,22)
Debarrenako ESI	188,6	236,1	0,79 (0,63-1,00)
Debagoienako ESI	158,9	174,5	0,91 (0,69-1,19)
Donostialdeako ESI	179,5	200,1	0,89 (0,80-0,99)
Goierri-Urola Garaia ESI	228,8	222,6	1,02 (0,85-1,24)
Tolosaldeako ESI	219,8	236,8	0,92 (0,73-1,16)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 1,2 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (1,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 100.000 biztanleko 146,1 kasutan kokatu da (171,0/100.000 aurreko astean). COVID-19arena baxu mantentzen da eta 100.000 biztanleko 2,2koa izan da (1,9/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIarako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 11 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 45,5 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat atzeman da, baina ez gripe-birus ala ABSik. 2 errinobirus, adenobirus 1 eta urtaroko koronabirus bat ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 0,0koa izan da aste honetan (aurreko astean bezala). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 9,1eraino jaitsi da (% 12,0 aurreko astean) eta ABSrena % 0,0an mantentzen da (aurreko astean bezala). Errinobirusaren positibotasuna % 18,2koa izan da (% 12,0 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE

	18. astea		17. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	521	30,3
SARS-CoV-2	1	9,1	3	12,0	39	2,3
ABS	0	0,0	0	0,0	70	4,1
Metaneumobirus	0	0,0	4	16,0	57	3,3
Parainfluenza	0	0,0	0	0,0	66	3,8
Adenobirus	1	9,1	0	0,0	72	4,2
Errinobirus	2	18,2	3	12,0	290	16,9
Urtaroko CoV	1	9,1	2	8,0	90	5,2
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	42	2,4

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erarortzen direnak. AIAL tasa 10,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,7/100.000 aurreko astean), 10,0/100.000 gizonetan eta 10,5/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 31,6 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 29,6 eta 6,0 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,0koa izan da 100.000 biztanleko (0,3/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,4 kasukoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du aste honetan eta % 0,0an kokatu da (% 4,8 aurreko astean). ABSrena % 0,8ra jaitsi da (% 2,8 aurreko astean) eta SARS-CoV-2aren positibotasuna % 5,2ra igo da (% 3,9 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	18. astea		17. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	173	5,2	178	3,9	8176	2,2
Influenza	138	0,0	145	4,8	7363	23,6
ABS	131	0,8	145	2,8	6862	10,9

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 49 SARS-CoV-2, 11 gripe-birus eta 6 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 11 gripe-birusetatik, 3 A motakoak izan dira, 6 A(H3), bat A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2024/40 astetik 9209 detekzio erregistratu dira, 7205 (% 78,2) A motakoak eta 2004 (% 21,8) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3646 birusetatik, 2476 (% 67,9) A(H3) eta 1170 (% 32,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko maiatzak 7

Zaintza Epidemiologikoa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza